

HAUR LITERATURA

Hitzak eta irudiak josten

HANKAZ GORA DU AMAK MUNDUA

Autoreak: Dani Martirena eta Ana Ibañez.

Argitaletxea: Liburu iletsuak.

Orrialde kopurua: 33 orrialde.

Prezioa: 15 euro.

Asun AGIRIANO

B estelako liburu dendetan ibiltzeak badu gero abantailarik! Adibidez, salduenetatik kanpo, liburu ezohiko eta bereziak aurkitzea. Horrela topatu nuen album ilustratu hau Iruñeko Katarak liburu dendan, ikuspegi soziokulturala aurkezten diguna.

Kontakizun interesgarri, berritzaile, esperimentala dakar liburuak, bai egituran bai ilustrazioan.

Ez da dudarik, mundua biziki aldatu da. Helduontzat abiadura handia baldin badarama, pentsa haurrei zenbat gertaera egingo zaizkien ulertezin. Denbora, pazientzia eta hausnarketa eskatzen dituzten egoerak bizi ditugu egunero, eta horien aurrean erantzunak adina galdera. Liburu honek haur baten ahotza aurkezten digu, haur narratzaile arduratua, bere amaren kezak direla eta. Ama larrituta ikusten duelako, minduta. Entzun dio adibidez mundu hau kafarra dela

esaten, ez du ulertzen hainbat hitz: hipoteka edo krisia. Beraz, sendagilearen papera hartuz, jolasa izango balitz moduan, haurrak munduari pupuak jartzen dizkio eta horrela indarra hartzen du eta beldurak uxatu.

“Marrazkilo bat izan nahi du amak, etxea beti soinean izateko.

Roulottean bizi direnak bezala, hipotekarik ez ordaintzeko”.

Kontakizuna ni-tik idatzita dago, haurraren barne-mundutik alegia, eta egungo giro sozioekonomikoa islatzen du: langabezia edo etxea ezin ordaindu dabilzanen mundua edo beren etxetik irtenarazi dituztenena. Horrela irakurtzen dugu liburuak amaieran duen eskaintzan:

“(…) bereziki haien herrenak nahi ditu zuzendu eta haien zartadurak josi”.

Ilustrazioaren teknika-uztarketan dago album ilus-

tratu honek duen berritasun nabarmena, Ana Ibañezen (Iruñea, 1972) lana. Josteko makinaz egindako hilerak finak dira marrazkien trazuak, adabaki-zatiak ere erabiltzen ditu, eta olioak kolorea emateko. Fondoak oihal marroia da, eta, gainean josita edo itsatsita, zatiak doaz collage bitxia osatuz. Gailentzen den marrazkia etxea da, esan daiteke hori dela artista-aren kezka nagusia. Errepikatzen den beste elementu bat etxeetatik ateratzen den malko luzea da, kearen antza duena, mi-

nak estaltzeko tiritak bailiran. Haur protagonistaren ama erizaina da, lanik gabe dagoen arren; agian horregatik jolasten du umeak sendagileetara.

Egileek liburuak kale-ratzeko aukeratu duten bidea autoekoizpena izan da; argitaletxeari emandako izena, berezia: Liburu iletsuak.

Dani Martiarena legasarraren hitzak dira irakurtzen ditugunak, orrialdearen ezkerrean esaldi laburra eta

tonu poetikoa, sotila eta xumea; izan ere, haurren mundua ez da beti koloretsua izaten, tristurak eta penak ere bizi dituzte, horregatik idazleak hitzak bikain aukeratu ditu, oso orraztuak dirudite, helduen zenbait eginkizuni umorea darie:

“Azkenaldian, bakarrik edo loreekin hitz egiten du amak.

Telebistarekin ere bai, krisia gora krisia behera.

(…) Bere ustez, zopa pila bat jan behar dut mundua ulertzeko”.

Irakurle helduari keinu egiten dio testuak, adibidez, Mariasun Landaren krokodiloari: liburuak irakurtzea da beldurraren aurkako txertoa. Politika konparazioa.

“Gure etxea” album ilustratuak ere (Erein, 2012) ukitu egiten du aldaketa sozialak gizarteari eragindako kalteen gaia, han ere haur narratzailea genuen, hura ere ariketa oso interesgarria eta ibilbide luzeagoa mereziko lukeen liburuak, bitartekariok guregana datozenei aholkatuz gero. Sarri, haurren inozentzia urratzeko beldurrez, istorio errazagoetara jotzen dugu helduok.

Bi sortzaile interesgarri liburu eder baterako. Haur literaturaren oihala astindu eta zabaltzera datorrena. Kontuan izateko jantzi paregabea.



HELDUEN LITERATURA

Zabor kontuak

ULTIMES DÉCHETS

Autorea: Itxaro Borda.

Argitaletxea: Maiatz.

Orrialde kopurua: 217.

Prezioa: 15 euro.

Estibalitz EZKERRA

Itxaro Bordaren “Bakean ützi arte” (1994) nobelan izan genuen lehen aldiz Amaia Ezpeldoi detektibearen berri. Ordutik egile beraren beste zenbait lanetan agertu da, “Ultimes déchets” haietarik azkena, esku artean dituen kasua(k) argitu bitartean (euskal) munduaren gainean, dela gizarte dela politika dela ekonomia dela genero ezberdintasunaren inguruan –detektibeak, behin eta berriz gogorarazten zaigunez, lesbiana da eta aukerarik ez du galtzen gayek aurre egin behar dieten diskriminazio eta aurreiritzizko egoerak salatzen, gogoeta heterodoxo eta umorezkoak eskainiz. Ezpeldoi aparteko trebetasuna du horretarako, hots, ikergai duen horretatik tiraka arazo lokalak eman dezaketen horiek testuinguru globalago batean kokatzen.

Oraingoan zaborraren kudeaketa eta garbiketarekin zerikusia duen kasua iker-

tzea dagokio Ezpeldoiri. Maddi delako ezagun baten eskaerari erantzunez, Bil Ta Garbi izen ezin aproposagoa duen konpainiak Hazparden lehenik eta Oragarraren ondoren eraiki nahi duen hondakin-degiaren planen nondik norakoak aztertzeari ekingo dio. Zaborraren sortze, metatze, biltze, eta deuseztatze prozesuan murgildu ahala –zenbaitetan arras literalak den murgiltzea, zabor artean aurkituko baitugu Ezpeldoi behin baino gehiagotan–, gaur egungo munduaren beraren metafora izan daitekeenarekin egiten du topo detektibeak. Zabortegia ez da salbuespenezko baldintza, urteetan pilatutako zaborrari emandako unean uneko irtenbidea, baizik eta fenomeno orokorrako baten adierazpena.

“Charlie Hebdo” egunkariaren kontrako erasoak gaitzesteko agerraldi publikoekin abiatzen den “Ultimes déchets”-en azaltzen zaigun gizartean, gurean, botere zirkuluetatik kanpoko bizitzak botere-tsuek kudeatzen duten zaborra bihurtu dira. «Nola bizi ziren hor jendeak, pobreak eta atzerritar etorkinak, zabortegieta-koak baino ez ziren baldintza horietan? Jendea zarama ibiltaria ote zen, nagusiek eta botere-tsuek hartzen, baliatzen, baliotzatzen, manipulatzeko, muineraino

zapaltzen eta aurtikitzen zutena justifikaziorik eman beharrik gabe?» (95 or.).

Begi bistakoa ez den indarkeriaz, hots, Rob Nixonek espresuki ingurugiroaren hondamenarekin lotzen duen baina oro har neoliberalismoaren ikur den indarkeria motelaz ari zaigu Bordaren azken lana. Begi bistakoa ez da gorputzean markarik uzten ez duelako eta haren ondorioak epe luzera nabaritzen direlako. Bada askozaz zuzenagoa den indarkeria ere, bonba eta ahalik eta biktima kopururik handiena adierazpen duena. Azken hori dute komunean “Charlie Hebdo”-ren aurkako erasoak eta Dédé zabor biltzailearen iloben desagerpenak. Indarkeria motelak eta zuzenak bata bestea-ekin zerikusia badu. Biak ala biak fenomeno lokala, globala eta transnazionala dira, eta zentzu horretan orotan eragina dute, nahiz eta boteretik gabekoez noztzen duten gehien haien kaltea.

Une batean Ezpeldoiak behekoen arteko elkartasunaren aukera du gogoetagai, baina berehala uxatzen du ideia hori unean uneko egoerek eskain dezaketen batasun sentsazioa ez delako gu geu parte gaituzten botere dinamikek ezarritako ezberdintasuna erabat uxatzeko gai: «Maite nuen klandestino izaera hau: az-

pi-lanetan higitzea zegokidan txiki-txikitatik eta beharrik betetzen nituen, kanti-tu gabe, ordena kontraesankor eta askotan apalesgarriek zoratua. Hargatik, Dédé eta Karimekin zinpurten nintzenez, halako berdintasun proletarioaz gozatzeko nintzela iruditzen zitzaidan, jakin arren argiki egoerak ez zirela iraunkor-rrak» (201 or.).

Tonu ezkorrean amaitzen da nobela, Bil Ta Garbikoek Oragarrerako duten proiektuaren garaipekin. «Herritar-rrak konturatzen hasiak ziren, abandonuz eta utzikiaz desertatu eremuek eskizak maltzurtean zeuden zikintegi promotoreak erotik interesatzen zituztela, hor zeudela enboskadan, muturrak nehoiz erakutsi gabe, goaitan, beraien artean murmuzikaz, arrastak karruskatuz: zer zuten bada herri baztertu horietako jende ezdeusek gure proiektuak salatzenko eta hauen kontra asaldatzeko? Aitzina joango gara, gure alde dauden gutxiengoak behar den bezala sarizatuz eta aukari bilo luze likits horiek bortxaz zapalduz, gure erabaki unilateralak onartu eta amor eman dezaten arte» (211 or.). Espero dezagun, hala ere, Ezpeldoi gure kontrasesanak eta kontzientziak astintzen jarraituko duela.